

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko abenduaren 11tik 18rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/12/12

- **OGASUN MINISTERIOA. - Estatuko Sektore Publikoa. Kontabilitatea.** - Ebazpena, 2020ko abenduaren 3koa, Estatuko Administrazioaren Kontuhartzailetza Nagusiarena, zeinaren bidez onesten den Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 2.2 artikulua aipatzen duen nortasun juridikorik gabeko funtsen Kontabilitate Plan Orokorra Estatuaren kontura arriskuak estaltzeko eragiketak egiten dituzten funtsetara egokitzea. [2020-16025 xedapena - 11 or.](#)

día 17/12/2020

• **ESTATUKO BURUZAGITZA. -**

- **Zigor Kodea.** - 2/2020 Lege Organikoa, abenduaren 16koa, Zigor Kodea aldatzen duena judizialki ezgaitutako pertsonen esterilizazio behartua edo baimendu gabea desagerrarazteko. [2020-16345 xedapena - 4 or.](#)
- **Nekazaritza. Elikadura.** - 8/2020 Legea, abenduaren 16koa, premiazko zenbait neurri hartzen dituen nekazaritzaren eta elikaduraren alorrean. [2020-16346 xedapena - 12 or.](#)
- **Kutsatze atmosferikoa.** - 9/2020 Legea, abenduaren 16koa, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketaren araubidea aldatzen duen martxoaren 9ko 172005 Legea aldatzen duena, emisio murrizketak modu eraginkorrean areagotzeko kostuei dagokienez. [2020-16347 xedapena - 41 or.](#)

• **BARNE MINISTERIOA. -**

- **Babes zibila.** - Ebazpena, 2020ko abenduaren 16koa, Idazkariordetzarena, 2020ko abenduaren 15eko Ministroen Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena; horren bidez, Babes Zibileko Larrialdien Estatuko Plan Orokorra onesten da. [2020-16349 xedapena - 30 or.](#)

- **PRESIDENTENTZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Energia elektrikoa.** - 1106/2020 Errege Dekretua, abenduaren 15koa, Kontsumitzaile elektointentsiboen Estatutua arautzen duena. [2020-16350 xedapena - 36 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

día 17/12/2020

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. -**
 - EBAZPENA, 2020ko abenduaren 2koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariarena, honako foru dekretu-arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 9/2020 Foru Dekretu Araua, azaroaren 10koa, Gipuzkoako toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoa. [5396 xedapena - 1 or.](#)
 - EBAZPENA, 2020ko abenduaren 2koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariarena, honako foru dekretu-arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 10/2020 Foru Dekretu Araua, azaroaren 17koa, epe luzerako zorpetzearen gehieneko muga 2020ko ekitaldirako handitzen duena. [5397 xedapena - 1 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala) **2020/12/16**

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. - FORU AGINDUAK (GIZARTE POLITIKEN SAILA).** - 155/2020 Foru Agindua abenduak 14koa, 137/2020 Foru Agindua aldatzen duena, irailaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoko adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetako bisitak eta irteerak arautzen dituen, COVID19ren osasun-krisiak iraun bitartean, 2020ko abenduaren 23tik 2021eko urtarrilaren 6ra bitartean egoitza-zentroetako bisitak eta irteerak arautzeko. [3915 xedapena - 3 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala) **2020/12/14**

- **EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA. - LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - Ebazpena, 2020ko abenduaren 1koa Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako ordezkariak emanda. Honen bitartez, eta Karrantza Haraneko Udalak horrela eskatuta, udal horretan 2020ko irailaren 29ko Ebazpena aldatzen da, 2021. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko festen egitaraua eta orokorra ezartzen zuena. [296 xedapena - 1 or.](#)

2020/12/16

- **GIZARTE EKINTZA SAILA.** - Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 62013 FORU AGINDUA, abenduaren 14koa, zeinaren bidez neurri osagarriak ezartzen baitira Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen

egoitza-zentroetako bisita eta irteeren indarreko erregulazioan abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra bitarte. [831 xedapena - 5 or.](#)

- **IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO SAILA.** - Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren 4992/2020 FORU AGINDUA, abenduaren 11koa. Bizkaiko Lurralde Historikoaren ardien mihi urdinaren gaitza kontrolatzeko beharrezko neurriak ezartzen dituen. [829 xedapena - 5 or.](#)

2020/12/17

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2165/2020 FORU AGINDUA, abenduaren 14koa; horren bidez, hurrenez hurren, makinak edo tresna automatikoak ustiatuz burutzen den Jokoaren gaineko Zergari eta horren gaineko errekaruari dagozkion 043-M eta 043-G ereduak aurkezteko eta ordaintzeko epeak aldatzen dira. [832 xedapena - 2 or.](#)

2020/12/18

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 108/2020 FORU DEKRETUA, abenduaren 9koa, zeinaren bidez ezartzen baitira 2021ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak. [821 xedapena - 3 or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/12/14

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 191/2020 Foru Dekretu-Ebazpena, abenduaren 10ekoa, 2020ko abenduaren 24a eta 31 egun baliogabetzat hartzen dituen. [6620 xedapena - 1 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/12/17

- Batzordearen 2020/2114 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2020ko abenduaren 16koa, zeinaren bidez aldatzen den Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1008/2008 zk. (EE) Erregelamendua, COVID-19aren pandemiaren ondorioei aurre egiteko premiazko neurrien aldi baterako luzapenari dagokionez, lurreko laguntza-agenteen hautaketari dagokionez. [2114 xedapena - 3 or.](#)

-
- Batzordearen 2020/2115 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2020ko abenduaren 16koa, zeinaren bidez aldatzen den Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1008/2008 zk. (EE) Erregelamendua, COVID-19aren pandemiaren ondorioei aurre egiteko premiazko neurrien aldi baterako luzapenari dagokionez, ustiapen-lizentziei dagokienez. [2115 xedapena - 3 or.](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO